

# NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

## EUSKALERRIAN BARNAN

### «Malatzako Loreak»

euskeraz Iruñan

Iruñeko «Comisión de Pastoral Vasca» delakoak esaten diguzte aurten eta lehen bizkotan aldiz Iruñean Ama Birginari eskeintutako «Malatzako Loreak» euskeraz eman go dira.

Egunero Alta Jesuiten Elizan errektoreak zuzentzen duen euskeraz emandako Meza ematen da. Aurten eta eskualde Meza honen ondoren Andre Mariaren Loreen otolizak esango dira. Malatzako Lore hauen esan Juan

XXII zenaren «Poen in terra» izeneko Enziklikaren alde izanen da, aurtan Alta Seindu haundi zen harrek ezagun orazi zuenetik amar urte betetzen direlako.

### «EUSKERA» Sariaren

garaileak: Sairustegi

ela Irigaray jaunak

Iruñeko «Aurrezki Kutxa» (Caja de Ahorros) erderaz Munizipalak bere ehun urte sortu zenetik ospatzeko Sa-

ri batzuk antolatuta zituen. Iruñan: Bata «Iruñak» izeneko, erderaz, gure Iruñari doakion gaia arturik. Beste bat «Erribera» zeritzana, erderaz erebal, gure egoalderako Iruñari buruzko gaia izanik; eta Iruñaren «Euskera» izena zuena. Azkenekoa euskeraz zan, ehun mila pezeta (100.000 pezeta).

Idazleak nafartarrak izan behar izaten ziren «Euskera» Sari berezi honetan parte artu ahal izateko.

Iruñeko «Aurrezki Kutxa» Munizipalak Euskaltzaindiari (Euskal Akademiari). Euskal Sari honen iriziz emateko Mahiburukoak izendatu zetan eskatu zion. Gure Euskal tzaindiak Iruñeko Akademiari eskatu zion, eta beste bitirokoa (Balgorkikoa) eta Euskaltzaindiaren bigarrena Lehendakaria, Yon San Martin Eibarrekoa, Euskaltzaindiaren Idazkaria, Maria n o izata, Elizondokoa eta Pedro Diez de Ulzurrun Iruñekoak, Laguntzaileak.

Euskal Sari honetara zapal euskaraz nafar idazleak berehenak bidaltu zituzten. Lanak «holandesa» delako ehun orrialdetik gorako luzeraz izan behar izan ziren.

Lehendakaria, eta irabaztailak: Urdialin go Erretoren den José María Satrustegi jaun bere «Eskuzko» izeneko lanarengatik. Honek ehun mila pezeta Sari Nagusia bereganatu du.

Bigarrena: José Angel Irigaray sendagile gaztea gerta da bere «Euskera eta nafarra» deritzan lana erretoritik. Honek Sari berezi bat irabazi du.

Biel, Satrustegi eta Irigaray lagunek, nere goresmenik eta zorionik beronenak biotzei.

# “GIZA BIZIA”, EUSKERA - ERDERA IZTEGIA. - “VIDA DEL HOMBRE”

**GIZA BIZIA** (Vida del Hombre) izenburuarekin, 239 orrialdetako euskera-erdera itzeli eder bat du; Gipuzkoako Aldara-ditza-estekak (bestela deitua, Aurrezki kutxak) argitaratu. Sendakin donostiarra dugun Carlos GOENA pralle-jesuitak, neke eta lan aundiko Atlas anatomico bilinguia delako bat osatu du. Oregi eta Zatarain jaunak laguntza-rekin.

VALVERDE moldiztegiak zinez handioski du satina-per distratean inprimatu. Bigarren zatian (Anatomia-irudiak), kolorezko apaingarri asko dakartzak, Gario ardu-taren eskukoak. Artzekodun ere gelditzen da Aldara-ditza-este alpatua, hain eskuazabalik txuri duen laguntzerengatik. Tamala zinez, sos horiek, ikasleolan beharrezko diren beste liburuxka bat edo bi osatzeko, ez baliatu izatea.

Aurrera jarraitu gabe esan dezagun, mediku-espezialista bati zoakon amets-iztegia dela hau, eta ez egungo Eskolategietako itzeli arronta bat. Hala ere, jenèriko-itz asko ongi moldatuak daudela iduri zaigu, bai eta anatomikoa itzeli parrasta bat, zuzen emanak: hala nola esofago (estegorri), anticonceptivo (ernal-eragozle), Bakteri(a), Vasos sanguíneos (odol-odiak), comisura labial (ezpain-xoko), Arteria (zaingorri), parótida (parotis), eta beste halako.

Baina izen asko, behar batera gabe euskeratu dituztela gaude, kultur-izkuntzak itzultzen ez duten bezala. Altabada, asken aldeko eraskinean, GOENAK berak dio: «Euskera, beste izkuntza landuen antzerka jokatu bearra da...; Hau da, erroa greko-latinetik artuz eta sufioak euskeratzen. Gero autotek jarraitzen du: «Sendagile-izkuntza erabil-tzen diran anbat itz falta dira...; baina guk uste sendakin arrotek (ez espezialistek) erabiltzen ez dituztela, ez jakin ere, itzeli sari diran hainbeste itz. Beraz, autotek predikatzen duen tankera, ez tu segitzen.

Arriola Atxeterrak itzaurrean, honela dio: «Liburua hau esta beinere erroa aldiak, zail gertatu da. Gure ikas eta Irakas-mailak, beraz, oraino apalago daudela aitortzeko, ezginku eraberik izan behar. Oroit gaitezten GALESEN, esperientzia luze baten ondoren, bi-letako Eskolatan eta Libretan, gal batzu (Matematika, Fisika, Biologia, etc.) ez dituztela gales-er esplikatzen. Z. Argia-ko idazle batek ere zion bezala: «Inglesez balizik; gales-izkuntzaren diko utzi. Geografia, Historia, Literatura eta Erlisiona galeak txollik.

Bestela, Itzeliak zuzen osatzeko, ekipoon egin behar dira, Irakurle franko duten idazle geinek usatzeko gisan txututak. Ez dezagun orain, Larramendi famatuaren Itzeli hura bezalako bat osatu, apropos eraldunaren sorpetira botatzeko egina: euskaldunen eta idazlearen usario-rako balarik. Orainok, gienziak itz arrotzetan txollik sartu behar-ko dira euskal itzeliak; zozokeria itziki, mintzazaleek nekaz artuko dituzten itzak, asmatzen aritzea.

Liburuaren lehen zatian, grekotik artutako sufio batzu azaltzen ditu autotek; hala nola Algia, cardia, itis, itis, osis, baina euskeratzen, asken a kenduz, izenak farregarri uzten ditu (neuragi, takikardi, hepatiti, etc.): beste izkuntzetan (Frantzesek ere orain) neuralgia, takikardia, hepatiti, etc. esaten dituztelarik.

Baina ez bakarrik hori: euskaldun idazle geinek (Joan den mendeko gipuzte ere barne), kasu batzuetan, a organiko bazuatu gabe idazten dute; «nescacha bat (ez nescach bat), eguia ciertoa da (ez egi ziertoa), hispania-co (ez Espaini-co); hala Gregorio ARRUE-k Hemen denek dakigu, Errenderia, Donostia, esan eta idatz dela oraintsu arte, kantak dion bezala:

Iru damaxo Donostia-ko // Errenderian dendarri // (ez Errenderin). Orain bertan Barandiaran-ek bere Iruñetan dio: «...anaie zaarrenari (ez anaie) go anaie gazteena makilla oi gatsu... (ez makil oi...) ikusi eban neskatilla bat; penista eban neskatilla arekin... (ez neskatil arekin...) ...burdilla au lagun dabela... (burdin au ...ordez).

Berdin J. Baista Agirre gipuzkoarrak...; Paradisuaren arbol bat... (ez arbol bat) ...bizitza bat... Au da eguia bat zure seinste edo fedeac... Iru gauza bear ciran... (ez Iru gauz...); eta hala beste idazle on guztiek.

Intestino ciego este makur esaten dute, baina ez este itza. Escalótica esta begi zurirago; begiko zuria baino; zurirago clara de huevo, da). Conducto de Falopio... de Silvio, Trompa de Esutauño, itzultzeko, ezta ren sufioa sartu beharrik (Falopio-ren, Silviren ubide); Falopio ubidea, baktik.

Izen bitxi asko asmatu ditu egileak ventriculo (sabel-ta), auricula (sapailua), izkuntza landuek egiten ez duten gisan.

Bigarren partean, anatomiko saileen iduria eta apaingarri ederrak dakartzak. Oro har, liburu ederra atara dute, txukunkin moldatua eta apaindu, eta horrengatik goresmen bizienak dituzte eragileek merezi.

A. Apar Etxebarne

### KUSLE

## E. ETXAMENDI abeslaria ta naparroa

Danak ba dakigu E. Etxamendi ipar Euskalerriko abeslari onenetakoa degula. Asko abestuzten du ta oso ongi. Poza en pozik aiboste egunotan bere azkeneko abestiak entzun nituan. Ezin aztu ta belarririk ezin kendu «Otsagabia» izeneko. Negar giroan entzun dutenetik mingarriena. Entzutera-koan negar egin bear. Jeremias Igarilearen mailakoak ditugu. Izena alaxekoa ere Napa roa'n dagon eririk politenetako bat. Gaia berriz ondo eukeratu; Otsagabia'n gantutakoa negargarria bai da; Saraitu'ko biotzean euskal arrasa era bat gaitzen. Iruñan' abesti au agertu nlen naparrak guztiek, negar egin bear. Azkonaren antzerka biotza urratzen bal du. Biotza urratutik lertu egin bear.

Orain itzen aldetik, kezka nagusiak agertu nai ditut. Esan bear: Etxamendi k gaurko Naparroa ez dula eaz-gutzen. Bere itz oiek ez dute egia eitortzen.

Otsagabia'ko gaia alaxekoa da, baiñan zergatik Naparroa rekin nastu? Zergatik blek batean agertu?

Gaur Naparroa'n arkitzen degun, ez da beste euskal-kietan ikusten. Gaizki mintzo ba bera, zuzendu.

«Naparroa a rotzurikan» dio Etxamendik: Naparroak oso ondo gorde du bere arnasa, ikus gaur Diputazioak daukan nortasuna, ematen ditun urratsak. Bere esku, bere buruaren jabe dalako Naparroaren alde beti jokatzan ari da. Orain Naparroa'ko lege zarren alde; beti bere nortasunari esko begiritzen diola.

«Arrotzurikan», nundik? Naparrak nazar zaletasuna odolcan gomirik daramakite, nai dezuten muturrekoak gal-hera. Beste gauza bat ezin

## BERTSOLARIAK

Bertsolarien dohainak arrigarriak direla ongi aski dakigu, bertsu bat moldatzea guretat hain zaila zaiguna gure bertsolarientzat eginizun errexa da. Hor gabilza beti bertsolarien artean, puntuak eta galak hekendako prestatzen eta bertsu bat ezin egin ez bada ongi pentsatu ta ondoan paperean idatzita. Gure eskualdean Euskal-Herriko bertze leku guzietan bezala bada bertsolario zaletasuna, gure euskaldun jendeak maite ditu bertsolariak. Hortaz gure bertsolariak bestak behar ginezke ongi zaindu eta jarraitu hortan etsitu gabe.

Aurtengo Maiatzean ere aintzineko urte hoietan bezala bertsolariak beste bat egia gogo digu, hortan lau kobleri on ariko direlarik, Bertsolariek jakin dezazuten erria-na dauzet besta hori Elizondo-ko Antxitoneko trinketean izanen dela. Maiatzaren 27-an arrotsaldeko hostak aldia eta bilkura hortan ariko direnak izango direla: LASARTE XALBADOR, GORROTXATEGI eta IGARZABAL. Hiru lehebizikoak gure herrian aunitz aldi ari izanak, ospe handiko bertsolariak eta oso ezaunak eta denbora berean maitatuak ere. Igarzabal gaztea lenbiziko aldia du honara etortzen dela, aunitz famatzen dute, oso ona izan behar du eta hortaz jendeak badu horri erantzuteko nahikeria. Bertsolariak beste lau Nafarroako Diputazioako «Institucion Principe de Viana» ren laguntzarekin egiten da eta hor biltzen dena Elizondo-ko Ikastolarako izanen da. Hemen behar ditut agertu Mattin eta Azpillaga-ren arteko bertsu aito bat, behin batez Elizondo-ko Antxitonean eginak 1970-ko Maiatzaren 17-an.

**MATTIN**—Ni pobre sortu izan naiz eta geroztik pobre gelditu, jatekoa ere gutti nuzen ta hartako ez naiz haunditu; ZU, Azpillaga, sostuna zera, halaxe zait iduritu; ni puska hobeki bizi niteke zure diruak banitu.

**AZPILAGA**—Bañan zuk, Mattin, arren atzazu eskatu horrelakorik; gizon txikia zera, legia, baina ez dago flakorik; gizon txikiak jaten ere ez du la gastatzen dirurik; len daukanakin ik aski daukat ta ze duk behar besterik.

**MATTIN**—Ni eskoletan enaiz ibilti gauza alintz ikasteko, eta gainera suertirik ez izan nik aberasteko. Borondaterik ba ote duk ik pixkat neri partitzeko? Karitatea egin behar duk zera irabazteko.

**AZPILAGA**—Nik diru asko ta diru gabe dago onen botzikua, baina aberats batena balno elalago du burua; milla pezeta dan bezelaxe estimatzen du dirua, pobre ari ondo bizi dan batek zertarako dik dirua?

**MATTIN**—Ni beti hoia ibiltzen balinaiz aberatsaren tentatzen, aberatsa hobeki dagola batere ez dut pentsatzen; duran apurra parrantan beti gostura baitut gastatzen, eta hau berriz etxe-zokuan bere diruen kontatzen.

**AZPILAGA**—Mattinek beti grifa hori du dakigu berak esanik; lforik ez dio gorrotorikan horren txikia izanik; atzo egindako diru pixarrak gaur nolatan daukan janik, honen semiak ez dute honen dirua gastatzen lanik.

**MATTIN**—Beñe dirurik ezpaitu gorde Mattin bizi den etxik, hortaz ohartu dira aspaldi semeak eta bertziak; nik beti aise itzeli ditut lanetik irabaziak, eta errexki kontatu ditut nik nere aitak utziak.

**AZPILAGA**—Gizon behartsu deabrusko heu beti ari da tentatzen, ta lseka bat asmatzen du nik ez dudala gastatzen; pralleak eta monja guztiek neronengana eskatzen, nik lanik asko bazuotzeko pobre guztiak mantentzen.

**MATTIN**—Gure aberatsa oral jua zuku pralle ta mojetaraino, nik berriz dotrian ikasi dut hoietarik egundaino, kamelu bat orratz-zilotik pasako dela aianio, zu bezalako aberatsen bat zerkoo atean baino.

**AZPILAGA**—Zeruko atea horren errexa dala al zak iruritu? horrek al balu patarrarekin bere muturra garbitu, lforik ematen ditzan guztiak berela zurpatze itu, alkohizatu ia hili zan nere diruak balitu.

M. IZETA

## AKULAR SARIA

### BEHARREZKO LAN BAT

Etxe batian zagon mutti bat eta nausiak erran zion mutti-

Marl: —Har zazu astoa eta peratu xalma eta aizkora eta gan bilar duzu ohianera egur itera.

Mutillak erran zion nausiarik: —Eztakit egur iten.

Nausiak erraten dio: —Zazi ohianera eta uyu egin hamar aldiz «Beharra, «Beharra», «Beharra».

Mutillak uyu egin du hamar aldiz eta ezta etorri «Beharra». Orduan bera aisi da egurra egiten, in du al zen bezala, astua kargatu du egurrez eta etorri da ebexera.

Etxera etorri zelaik nausiak erraten dio: —Etortri da «Beharra»?

Mutillak erraten dio: —Ez nausia neonek egin dut.

Nausiak erraten dio: —HORI DA BEHARRA.

Sara Luisa MENDIBURU  
8 urte Erratzu-ko Eskolakoa

## GAIXTAKINA ETA NEKAZARIA

Gau batez nekazari bati ebatsi zioten etxean zuen begorrik hobereña. Gororatu zitzaion bertze bat errostea. Joan da errostokira eta han ikusten du bere behorra eta arritu zen. Berehala hartu eta erran zuen:

—Hau nere behorra da, orai hir uyu egun eraman zataten. Gaixtakinak urbildu eta erran zion:

—Gaiaki zaudet zurea iduria izango da bainan urte bat huntan begor hau nerea da. Berehala nagusiak begiak estali diozka eta galdetu zein begia duen okerra. Eta gaixtakinak ez lakinean erran dio ezkerra. Eta orduan labeak:

—Gezurra diozu.

Gaixtakinak: —O bai eskufa. Zerbait erran behar ta.

Orduan labeak begiak agertu ta.

—Ezagun da garbi ebatsi duzula, begor hau ez da okerra ez eskufetik eta ez ezkeretik. Etorri denak eta ikusi egite den edo ez, nai dut nik lakitia hau gaixtakin bat dela.

—Galdua zara, galdua zara.

Eta gaixtakinak itzuli behar izan zuen begorra bere labeart eta gaixtakeri haren zorra ordaindu.

J. MIGEL IRIARTE  
10 urte. Arizkun-ko Eskolakoa

## BEDAUX

### SELECCION DE PERSONAL

Importante empresa

internacional de

Calefacción Eléctrica

precisa

Delegado Regional de Ventas

Para la Zona de Norte-Centro (Palencia, Burgos, Alava, Logroño y Navarra).

**FUNCIONES:** Desarrollar la red comercial, impulsar y controlar los resultados, con responsabilidad y proyección.

**SE DESEA:**  
— Profesional de altura con sólida formación básica y de Marketing.  
— Experiencia e introducción en el mercado de calefacción eléctrica y/o electrodomésticos.  
— Aptitud y dedicación para desarrollar la red comercial, impulsarla y controlar resultados.

**SE OFRECE:**  
— Integración en empresa dinámica con amplios programas de investigación de nuevos productos.  
— Puesto de responsabilidad con proyección futura.  
— Formación específica a cargo de la empresa.  
— Remuneración base de negociación 300.000 pta. Escribir de puño y letra, detallando historial personal y profesional e indicando teléfono de contacto y referencia a:


**BEDAUX ESPAÑOLA, S. A.**  
Referencia J.F. R. 384  
Ave. Generalísimo, 30  
MADRID—16  
Empresa encargada de la selección.  
(Ref. Nat. 10.758)

## Linde

Un nuevo concepto de frío para el hogar

- FRIGORÍFICOS
- ARMARIOS
- CONGELADORES
- ARCONES
- DE CONGELACION

Y además, los sensacionales modelos LINDE LDS 18/23 y LDS 16/18, con dos compresores y dos termostatos independientes, que combinan en un solo aparato frigorífico y congelador.



LINDE OFRECE UNA GAMA DE ONCE MODELOS DIFERENTES

**DISTRIBUIDOR OFICIAL**  
CICLOS NOAIN, Príncipe Viana, 2  
PAMPLONA



dana esan: «Baiñan primaderarik Naparroa ez eldu». Urbildu zaitze Iruñara, begiak zabalik ikus; eunka aur ikastoletera, millaka txistolari gazte, dantzariak multzoka. Naparroa'ko agintariak bere gain ikastolak artzen dituzte; artzen, indartzen, zuzperitzen. Berreun biztanleko erriak ba ditugu beren ikastolekin. Nun beste aibeste Euskalerrian? Diputazioak bere aildzkaria euskeraz bakarrik agitia ba dauka ta utsen banatzen diena euskal sendi guztiei. Nola esan leike ein ari. «Bainan primaderarik Naparroa'rat ez eldu» Orain beste euskaliek ta n ezin dana egin, naparrak Naparroa'n egin dezakete; Na-

LATXAGA